



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko apirilaren 17an

42 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Legea, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, erditze anizkoitzak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

—Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zubi-kreditua eman diezaien Sinteleko langileei. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateak finantzatzeko formula berriak bila ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erdialdean berrindustrializazio-politika eraginkorra egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak oinarritzko zenbait alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko apirilaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeak VI. tituluko II. kapituluako 1. ataleko 52-56 artikuluetan arautzen da zer zerga pizgarri emanen zaizkien sortu berriko entitateei eta X. tituluko XIII. kapituluako 156. eta 157. artikuluetan, berriz, zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroak arautzen dira.

Lehenbiziko pizgarria da entitateak izan duen errentari dagokion kuota osoaren 100eko 50eko hoberia aplikatzea, eta aplikatu ere, jarduera hasi eta hurrengo zazpi urteko epean ixten diren zergaldietan, lau zergaldi direla gehieneko muga, kitapen oinarri positiboak izan dituen lehen zergalditik kontatuta.

Bestalde, zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroek bi metodo izanen dituzte aukeran zerga oinarria kalkulatzeko:

– Sozietateen gaineko zergari buruzko foru legeko 13. artikuluko arau orokorrak aplikatzea.

– Zentro horiek zergaldi bakoitzean izan dituzten gastuei 100eko 25 aplikatzea, finantza gastuak kanpo utzita.

Kontuan hartu behar da, gainera, Europar Batzordeak 1999ko abuztuaren 17an jakinarazi zuela hasiera emanen zaiola EB Itunaren 88. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen den prozedurari, Sozietateen gaineko zergaren kuotari 100eko 50eko hoberia egitearen bidezko laguntza fiskalei buruzkoa.

Beste alde batetik, Europar Batasunean eratu den Jokabide Kodearen Taldeak (enpresen fiskalitatea), ezarri du Nafarroan zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroetarako hartu diren neurriek betetzen dituztela kaltegarritzat jotzeko behar diren baldintzak, sortzen duten egiazko zerga-maila ohikoa baino nabarmen txikiagoa delako.

Delako gatazka-bidea ez da soilik Europako instituzioen barrenean gertatu; Espainia barrenean ere gertatu da: Espainiako Gobernuak, hortaz, 1299/97 konstituzio aurkakotasuneko helegitea jarri zuen, arestian aipatu pizgarrien kontra, zeina oraindik ebazkizun baitago Konstituzio Auzitegian.

Gauzak horrela, bada, Estatuaren Administrazioak eta Nafarroako Foru Komunitatearen konpromiso bat eratu dute Lankidetzaren Batzordean (Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 69. artikuluan arautua): haren arabera, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat bidaliko dio Nafarroako Parlamentuari gatazka-bide diren zerga pizgarriak indarrak gabe uzteko; Estatuaren Administrazioak, berriz, utzi egingen du arestian aipatu 1299/97 konstituzio aurkakotasuneko helegitea, eta bai 549/94 helegitea ere, azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legeko zenbait aginduren gainekoa.

Orain artekoa gogoan, Nafarroako Gobernuari beharrezko iruditzen zaio sortu berriko entitateei kuotaren hoberia egiteari eta zuzendaritza, koordinazio eta finantza zentroei dagozkien zerga pizgarriak indargabetzea.

Artikulu bakarra. 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietarako, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko agindu hauek indargabetu dira:

- a) VI. tituluko II. kapituluko 1. atala.
- b) X. tituluko XIII. kapitulua.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatu eta gartzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, erditze anizkoitzak izan dituzten familientzako laguntzari buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2001eko apirilaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako erditze anizkoitzak izan dituzten familientzako laguntzari buruzko Foru Lege proposamena baztertzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2001eko otsailaren 26ko 18 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2001eko apirilaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena baztertzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2001eko martxoaren 5eko 21 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zubi-kreditua eman diezaien Sinteleko langileei

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 5ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zubi-kreditua eman diezaien Sinteleko langileei".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zubi-kreditua eman diezaien Sinteleko langileei

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du finantza-entitateen bitartez zubi-kreditua eman diezaion Sintel enpresak Nafarroan duen lantegiko langile bakoitzari, Lan Ministeriotik jaso beharreko kopuruaren aurrerakin gisa.

2.- Nafarroako Parlamentuak Estatuko Administrazio Orokorra premiatzen du, aurreko puntua-rekin koherentzia izanik, behar diren ekintzak abiaraz ditzan "Sintel"eko langileak Espainiako Estatu osoan gaur egun pairatzen ari diren okerrera egoera arintzeko, eta kolektibo horren lan-egonkortasuna bermatzeko egokien jotzen dituen urratsak eman ditzan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateak finantzatzeko formula berriak bila ditzan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateak finantzatzeko formula berriak bila ditzan".

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko apirilaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, aipatutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2001eko otsailaren 26ko 18 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 5ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familiei ordenagailuak erosten eta internetera konektatzen laguntzeko neurri-multzotzat ezar dezan hilabeteko epean, zeinak 2001eko urtarrilaren 1erainoko atzeraeragina izanen baitu.

Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 5ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan

Nafarroako Parlamentuak gobernu zentrala premiatzen du presako neurriak har ditzan

1.- Aurrekontu zein administrazio aldetik bete dezan enplegatu publikoen 1997ko lansarietan KPI igotzeari eta ondoko urteetan horrek duen eraginari buruz Entzutegi Nazionalak 2000ko azaroaren 7an emandako epaia.

2.- Epaia aplikatzearen akordia sinatu zuten sindikatuekin negoziazio prozesuari ekin diezaion.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 5ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan

Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du 2001ean minbiziaren aurkako ekintza Plan bat aurkez dezan, zeinean honako puntu hauek bilduko baitira:

1. Nafarroako Zentro Onkologikoa eratzea, Koordinazio Onkologikorako Eskualdeko Bulego

gisa jardun dezan eta minbiziaren arloan laguntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduera zuzendu dezan.

2. Eskualdeko ospitaleetan minbiziaren unitateak definitzea.

3. Jarduketak erien beharrizanen inguruan antolatzea.

4. Dotazioak berrikuntza teknologikoaren esparruan sartzea.

5. Bermatu behar du diziplina arteko Plan Terapeutiko adostu batean oinarrituak egonen direla tratamenduak.

6. Tratamenduak ahalik eta eskuragarrienak izatea bultzatu behar du, behar den kalitate teknikoarekin bateragarri eginez.

7. Minbiziari buruzko egiazko Informazio Unitate bat eratzea.

8. Lidergo eta parte-hartze kontzeptuak, beharrezkoak, kontuan hartzea.

9. Minbiziaren aurka berariazko ikerketa-politika bat aurrera eramatea.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erdialdean berrindustrializazio-politika eraginkorra egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 5ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erdialdean berrindustrializazio-politika eraginkorra egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erdialdean berrindustrializazio-politika eraginkorra egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erdialdean berrindustrializazio-politika zehatz eta eraginkorra egin dezan, zeinak, gutxienez ere, honako hauek jasoko baititu:

- Industrialdeak handitzeko berariazko ekintzei laguntzea, hala eskatzen zaionean; besteak

beste, jadanik proposatu direnetan (Zarrakaztelu, Azkoien, Martzilla –Azucarera–...).

- La Nava Poligonoa (Tafalla-Erriberri) handitzea, gutxi gorabehera 200.000 metro koadro gehituz.

- Udalekin ados jarritz, eskualdeko industrialde mankomunatu berri bat aurreikusi eta eraikitzea. Industrialde horrek milioi eta erdi metro koadro inguruko azalera izanen du.

- Birlaneratzeko eta enplegua sustatzeko politikak abiaraztea; bereziki, emakumeei dagokienez.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak oinarrizko zenbait alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 5ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak oinarrizko zenbait alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak oinarrizko zenbait alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan

Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kontratuei buruzko Foru Legeak funtsezko bere alderdi batzuk –toki entitateen edo Administrazio Kontrataziorako Batzordearen kontratazioa arautzea kasu– garatzeko ezarritako epeak bete ditzan eta aipaturiko legeko lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako errege-lamenduzko xedapenak eman ditzan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko apirilaren 5ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan

Parlamentuko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Ogasunari buruzko Foru Legea alda dezan, xedea izanik Nafarroako kontu orokorrek jaso ditzatela haietan euren informazioa sartu behar duten ente-mota guztien kontuak, eta euren finantza-araubideari dagozkion alderdi guztiak arautu ditzan, kontuek foru sektore publiko guztiari buruzko ikuspegi orokorra ager dezaten.